

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Mendizabal Lete

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1955)*

Aurkibidea



Biografia



Basalde auzoko Aritzagabasalde baserrikoa. Antzuolako hitanoa jasotzeko elkarrizketatu genuen, [Mila Etxezarreta](#) lagunarekin batera. Joxe Marik etxean jaso zuen hitanoa: bost arreba ditu eta haiekin hika hitz egiten du. Lurdes Badiola emaztearekin ere hika egiten du; koadrilakoak dira eta halaxe ohitu ziren. Bi semeei, berriz, zuka egiten diete. Oinarrizko ikasketak Antzuolan egin ostean, Bergarako Elementalean ibili zen. Elay enpresan egin du lana.

Zintak

ANT-134

- **Proiektua:** Antzuolan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-03-15
- **Iraupena:** 107 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hika, bata mutikotatik, bestea gaztetxotan hasita

- **Erref:** ANT-134/004
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Joxe Marik mutikotatik egiten du hika, etxetik jaso du eta. Milak, ostera, etxean entzuten zuen baina ez zuen egiten, animaliei ez bazen; hamabost urte ingururekin hasi zen. Auzokoek hika egiten zioten Joxe Mariri. Lagunartean beti hika egin izan du Joxe Marik. Batzuekin hika egiten hasi zen Mila.</p>

2. Lagun artean hika, bestela aldakor

- **Erref:** ANT-134/005

- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Milak lagunartean egiten du hika. Institutuan batzuekin egiten zuen eta beste batzuekin ez. Joxe Marik orokorrean herrian hika egiten duela dio; lantokian berriz, mutilei hika eta neskei, batzuei bakarrik. Ez dakite zergatik gertatzen zaien hori, batzuen aurrean irteten diela hikak eta beste batzuen aurrean ez. Boladaka ere izaten dela diote.</p>

3. Hitanorik ez adinekoei edo konfidantzarik ez dutenei

- **Erref:** ANT-134/006
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gurasoei ezingo lieke egin Milak, eta ilobak bere aitari hika egitea gogorra egiten zaio, nahiz eta galtzea baino hobeto iruditzen zaion. Joxe Marik gaztetako pasarte bat kontaktzen du. Ez dute hika egiten adinekoekin eta konfidantza handirik ez dutenekin. Hainbat adibide jartzen dituzte.</p>

4. Seme-alabei zuka; semeek lagun artean hika

- **Erref:** ANT-134/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Seme-alabei zuka egiten die Milak eta Joxe Marik ere semeei zuka egiten die. Ingurukoak seme-alabei zuka egiten entzun izanak eragina izango zuela uste du Joxe Marik. Joxe Mariren amak hika egiten die bilobei; Milaren amak, ostera, zuka. Semeek kuadrilan hika egiten dutela dio.</p>

5. Emakumeei hika egitea ez zela fina

- **Erref:** ANT-134/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Milak dio etxe batzuetan gertatu dela emakumeei ez zitzaiea gustatzen hika egin ziezaioten, haientzat ez zelako batere fina. Joxe Marik ez dauka argi zergatik gertatzen den hori.</p>

6. Hika baserritarrena eta baldarra, batzuentzat

- **Erref:** ANT-134/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Institutuan bi lagunekin hika egiten zuen Milak, eta biak ziren baserri girokoak. Joxe Marik kaletarrekin ere egin izan du. Etxean emakumeei hika egitea ez zela fina esaten zioten lagun bati buruz berba eginez, Milak uste du lotuta egon daitezkeela hika baserritarrena den ideia eta gainera baserritarrak baldartzat hartzearena ere bai.</p>

7. Hika, batzuekin bai, beste batzuekin ezin

- **Erref:** ANT-134/011
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:30:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ilobari hika egitea kosta egiten zaio Milari, hark eskatu arren. Bilobei egitea ere ez zaio ateratzen. Dakitenek egin behar dutela dio. Joxe Marik koinatuekin ere egiten du. Euskalkiei buruzkoak aipatzen dituzte.</p>

8. Denetariko jendea hika

- **Erref:** ANT-134/012
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Orokorrean, hitanoa egiten dute baserritarrek, beraiek baino nagusiagoek batzuek, gazte batzuek... Zer ikasi duen, lanean non dabiltzan, zeinekin harremantzen diren... gorabehera asko dagoela diote. Lantokian gazteagoei

hika egiten diete Joxe Marik eta; lantegia handitu zenean, neska batzuei zuka. Kuadrilaka izaten dela dio Milak: batzuek hizarako joera dutela, beste batzuek zugarako eta beste batzuek erdararako.</p>

9. Elkarrizketa gutxiago, hika gutxiago

- **Erref:** ANT-134/013
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Baserriko emakumeek lehen haien artean hika egingo zutela diote eta harreman handia zeukatela haien artean. Hori galtzarekin batera, hika gutxiagotzea eragin zezakeela uste dute. Elkarrizketa gutxiago egiten dela uste du Joxe Marik, eta mugikorretik asko erdaraz sartzen dela dio, eta horrek eragin handia daukala.</p>

10. Hitanoaren transmisioan etena

- **Erref:** ANT-134/014
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Milaren ama eta izebak etxean egoten ziren eta osaba ostera kalera joaten zen, eta hika egiteko aukera gehiago izaten zuen. Joxe Marik azaltzen du elkarte gastronomikoetan gizonak egoten zirela eta haiek hika egiten zutela normalean. Joxe Mari lantokian hasi zenean, haiekin lan egiten zuen emakumearekin hika egiten zuen; gero sartutako neskekin zuka. Transmisioan etena egon dela dio Milak. Norbaitek proposatu zuelako hasi ziren kuadrilako neskak hika egiten eta azkenerako, mutil eta neska, denak hortara ohitu ziren.</p>

11. Animaliei beti hika, toka eta noka

- **Erref:** ANT-134/015
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:42:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mila akordatzen da animaliei hika egiten ziela. Joxe Marik ere beti hika egin izan die animaliei. Arrari eta emeari desberdin egiten dietela diote.</p>

12. Norbere buruari hika

- **Erref:** ANT-134/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:01. **Bukatu:** 00:43:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Norbere buruari hika egiteko ohitura dutela diote, bakoitzak bere generoan, baina Milak dio batzuetan toka ere egiten duela.</p>

13. Hika erraz, bereziki inguruak laguntzen badu

- **Erref:** ANT-134/017
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:43:56. **Bukatu:** 00:46:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egiteak konfiantza eta gertutasuna ematen duela diote. Edozeini ez diote lehenengoan hika egiten, baina taldean hika ari badira eta norbait sartzen bada, izan daitekeela dio Milak. Joxe Marik dio erraz irteten diola hika egitea edozeini. Besteak hika eginez gero, Milak ere hala egiten duela dio.</p>

14. Hitanoa berreskuratzeke, transmisioa

- **Erref:** ANT-134/020
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:54:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitano ikastaroan, gizonezko batek alabei hika ondo egiteko noka ikasi nahi zuela kontatzen du Milak. Norberak nahi izan behar duela dio Milak. Trasmisioa berreskuratzea dela gakoa uste du Joxe Marik.</p>

15. Eskolan hasi eta erdaraz jakin ez

- **Erref:** ANT-134/023
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:57:11. **Bukatu:** 01:00:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Joxe Marirentzat oso gogorra izan zen eskolan hastea, erdaraz ez zekiten eta. Besteek egindakoagatik zigor bera jasotzen zuenez, bera ere okerkerietan ibiltzen zen. Mutilak zigortu egiten zituzten nesken gelan. Mila bost urterekin hasi zen eskolan, bidea ikasteko. "Idiota" izan zen erdaraz ikasi zuen lehen hitza. Edurne zuten maistra eta ez zituen zigortzen euskaraz egiteagatik. Eskolari gorrotoa eta beldurra zion Joxe Marik.

16. Lehengo jolasetan hizkuntza beti tartean

- **Erref:** ANT-134/025
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:02:08. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Galdeona eta txirikilarekin, kanikekin, banderaka, futbolean, pilotan, tortoloxka, sokasaltoka, gomaka... Taldean edo binaka ibiltzen ziren jolasean. Hizkuntza beti tartean zegoen.

17. Euskara eskura izanda, erdaraz

- **Erref:** ANT-134/026
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:03:57. **Bukatu:** 01:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beraien garaian, erdaraz ikasi behar eta euskaraz asko entzuten zen eta orain alderantziz gertatzen dela dio Milak. Milak erdaraz ikasi zituen zenbakiak eta euskaraz erabiltzea kostatu egin zaio. Joxe Marik dio Elai lantokian dena euskaratu zutela eta dena euskaraz egitea lortu zutela. Joxe Marik uste du mugikorren eragina izugarria dela, erdararako joerari dagokionez. Milak anekdota bat kontatzen du.

18. Baserritar izateagatik burla

- **Erref:** ANT-134/029
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:10:43. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Milak gogoan dauka burla egiten ziotela baserritar izateagatik eta konplexua bazeukala. Hainbat pasarte kontatzen ditu. Beraien ezinak estaltzeko egiten ziotela burla diote. Joxe Marik aipatzen du beti abarkekin joaten zela eskolara eta horregatik entzun beharko zituela, baina ez dauka gogoan. Bergarara joaten hasi zenean, nabaritzen zuen bergararrak tenteagoak zirela eta onera edo txarrera konpontzen zirela.

19. Dutxa eta argindarra sartu zirenekoa

- **Erref:** ANT-134/032
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:17:45. **Bukatu:** 01:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bizimodua asko aldatu dela azaltzen du Joxe Marik, teknologiaren aldetik eta bestela ere bai. Dutxa ipintzerako hamasei urte inguru zituela dio. Argindarra sartu zenekoa kontatzen du. Aurrezki kutxekin egiten ari diren murrizketa eta aldaketak aipatzen ditu Joxe Marik.

20. Teknologia aurrera, harremanak atzera

- **Erref:** ANT-134/033
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:19:47. **Bukatu:** 01:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehenengo garbigailua zelakoa zen kontatzen du Milak. Garbiketarekin lotutako aldaketek emakumeak etxean geratzea ekarri zuela azaltzen du. Gizartea zentzu batean aurrera doan heinean, harremanen arloan atzera doala uste du Milak. Joxe Marik dio gizonek herritarren kontu gehiago jakiten zitzutela emakumeek baino, jende artean gehiago ibiltzen zirelako.

21. Hizkuntza-ohiturak aldatu beharra

- **Erref:** ANT-134/034
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Itxurarengatik edo herritik kanpora joandakoan, tabernetan eta erdaraz eskatu izan dute, euskaraz jakingo ez dutelakoan. Hori aldatu beharra daukatela diote. Hasteko, euskaraz egin edo ikastea norbere aukera dela dio Milak. Talde batean euskaraz ulertzen ez duenen bat dagoenean, bi egoera gertatzen direla diote: batzuetan erdaraz besterik ez dakiena mindu egiten dela eta beste batzuetan euskaldunak berak hartzen duela erdararakoa, lehenago bukatzearren. Adibide bana jartzen dute.

22. Erdalduna zelakoan euskalduna izan

- **Erref:** ANT-134/035
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:27:41. **Bukatu:** 01:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Batzuetan norbaitek euskaraz ulertzen ez badu, denek erraz eta bizkor ulertzeko erdaraz egiten dira bilerak. Beste batzuetan xuxurlaka itzultzen da. Jacan gertatutako pasarte pare bat kontatzen ditu Milak. Joxe Marik kontatzen du, batzuetan ezezagun batekin erdaraz egin eta hark bukaeran euskaraz agurtzean konturatzea bazekiela euskaraz.

23. Auzo batetik bestera, hizkera ezberdina

- **Erref:** ANT-134/037
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:30:33. **Bukatu:** 01:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Antzuolako hizkera Bergarakoaren antzekoa dela dio Milak. Ezberdintasun batzuk aipatzen ditu. Ingurukoak ere erraz ezagutzen direla dio Milak. Antzuolan bertan, auzo batetik bestera aldatu egiten dela diote.

24. Hasierako alardetik oraingora, alde handia

- **Erref:** ANT-134/040
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 01:38:23. **Bukatu:** 01:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Joxe Mari akordatzen da bera ume zela zelakoa izaten zen alardea; erdaraz izaten zela dio. Herriak gero eta parte hartze handiagoa hartu zuen. Soldadutzatik baimena hartzen zuten alardean parte hartzeko. Kuadrilak eta elkarteak parte hartzen hasi ziren eta ondoren emakumeak ere bai, nahiko natural.

25. Alardea oso umiliagarria zen

- **Erref:** ANT-134/041
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 01:42:09. **Bukatu:** 01:46:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- 101L » Integrazioa » Arrazakeria

Laburpena:

Diskurtsoa ere aldatu egin zuten alardean. Oso umiliagarria zela kontatzen dute. Orain euskaraz egiten dela diote.

Mendizabal Lete, Joxe Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com